

Bakaikuko leku-izenak

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON*

Lan hau egiteko lau aldiz elkartu naiz Pedro Miguel Kintana Ondarra bakaikuarrarekin, bizpahiru ordutako lan saioak burutu ditugularik elkarrekin, bera izenak aipatu eta kokapena adierazten, eta ni horiek jaso eta azalpenen bat edo beste lortu nahian. Emaiza, lantxo honetaz gain, bukaeran eransten dugun mapa toponimikoa. Eta informatzaile nagusia Pedro Miguel izan bada, berarekin bukatu ondoren, beste hainbat bakaikuarrek berretsi dute emaitza, egungo erabilera horrela dela ziurtatu dutelarik.

Lan honetan, bestalde, toponimoen egungo burutzapenez gainera, NTM X (1992, 29-53) eta Ondarraren *Voces vascas de Bakaicoa* (1965, 21-24) lanean agertzen diren burutzapenak jaso ditut, eta baita bakoitzari dagokion iruzkina ere, honek toponimoek jasan duten bilakabidea ulertzen lagunduko duelakoan. Eta hauetaz gain, oso baliagarri suertatu zaizkit Rafael Carasatorrereren *Barranca-Burunda* (1993) eta Mikel Belaskoren *Diccionario etimológico de los nombres de los montes y ríos de Navarra* (2000). Toponimo nagusiak maiuskulaz daude idatzita eta hauengandik eratorriak minuskulaz. Ez dut burutzapen arautu edo formalizaturikoa eman nahi izan, batzuetan zail suertatzen delako horrelakorik erabakitzea (*aizberde*, *haritzberde* ala *haitzberde?*), eta oso agerikoak direnetan berriz, egungo burutzapenetik oso urrun geratzen da askotan, ulermena bera ere oztopa dezakeelarik (*aixlux* ala *ha(r)itzluze?*). Horrexegatik, herritarren burutzapen bera proposatuko nuke erabiltzea. Guztira 165 nagusi eta 67 eratorri ditugu (gehienetan nagusiaren zehazpena baino ez) eta hiru eremu geografikotan banatu ditut iparraldetik hegoalderako norabidean:

- a) Gipuzkuko mugatik *Aizkibelgo ibeiya*-rainoko eremuko toponimoak.
- b) Aurreko eremua mugatzen duen errekatik Burunda ibairainoko eremuko toponimoak.
- c) Burunda ibaitik Urbasa mendirainoko eremukoak.

* Euskal filologian doktorea.

a) Gipuzkuko mugatik *Aizkibelgo ibeiya*-rainoko eremuko toponimoak:

AIZBERDE	B2	NTM-n <i>arizberde</i> jaso dute, ondorengo gaineratzen dutelarik: “Explican que allí hay un roble que echa la hoja el primero y la pierde el último”. Ondarrak ez zuen jaso. Nire ustean, ‘haritz’ zein ‘haitz’ izan daiteke bere lehen osagaia, goroldioz estaliriko haitza adieraziz, bigarrenaren kasuan.
AIZKIBEL Aizkibelgo zelaya Aizkibelgo ibeiya	B2-3 B2-3 AB3	Horrela jaso dute NTM-n, 1965 urtean dokumentatua, eta baita Ondarrak ere. Toponimo eratorriak ez dira ageri NTM-n eta Ondarrak <i>aizkibel-zelai</i> jaso zuen soilik. Bigarren eratorriak Bakaikuko dermioa mendebaldetik ekialdera zeharkatzen duen erreka adierazten du. MB-k Subiza eta Ziordin kokatzen du eta azken honen azalpen moduan zera dio: “El topónimo es utilizado en toda la Burunda para designar la zona situada detrás del cresterío que cierra la comarca por el norte”. Etxarrin <i>ezkibel</i> dago, eta bat letorke MB-k esandakoarekin. BB-k (1993, 57-58) horrela dakar ‘aitz’ sarrera azaltzerakoan: “Aizguibela (1652) ha dado diversas variantes a lo largo de los años y de los pueblos: Ezkibel, Izkibil. Junto a los derivados de Illar e Itxas es uno de los topónimos que recorrían el valle, connotando en este caso una estribación de Aralar”. Dena den, <i>haitz</i> eta <i>gibel</i> izango lirateke bere osagaiak, hots, haitz edo malkorraren atzealdea adieraziko luke.
ARBIXUN GAZTAINALDIYA	AB2	NTM-n <i>arbixuren gatzainaldia</i> dago jaso eta Ondarrak <i>arbixun-etxalde</i> jaso zuen. Arbizu izeneko baten ‘gatzainadi’-a izango litzateke. Toponimoaren lehen osagaiak ondorengo bilakabidea izan du: <i>arbizuren</i> > <i>arbixuren</i> (bustidura adierazkorra) > <i>arbixuen</i> (dardarkariaren gale- <i>ra</i>) > <i>arbiXuun</i> ($V_1V_2 > V_1V_1$) > <i>arbiXuun</i> ($V_1V_1 > V_1$). Bigarrenean, <i>-aldi</i> atzizki eratorlea izango genuke, <i>-di</i> edo <i>-degi</i> -ren parekoa. Ondarrak horrela azaltzen digu: “-aldi: posfijo local abundancial”.
ARGINUZ Arginuzgo arriya Arginuzgo siyetsa	A1 A1 A1	NTM-n <i>arginaroz</i> , eta <i>arginuz</i> dokumentaturik 1965ean. Ondarrak horrela jaso zuen. Iturmendiko mugan dugu toponimo hau eta <i>arguiñariz</i> o <i>arguinaroz</i> ageri da dokumentaturik 1776an, eta <i>arguiñoz</i> 1990ean, NTM-n. Osagaiei dagokienez, lehenak, <i>argin</i> (hargin), ez du zalantza gehiegirik sortzen, baina bai bigarrenak, <i>arotz</i> eta (h) <i>aritz</i> izan daitekeelarik. ‘Arotz’ errementariren sinonimoa izango genuke Sakanan, bestalde. Lehen toponimoak ez du azalpenik behar, eta bigarreneko <i>siyetsa</i> -k, hezetasun handiko lekua, ur-paltsak eta guzti dituen, adierazten du.
ARRUBIYA	B1	<i>Arrobi</i> jaso dute NTM-n, eta dokumentaturik <i>arrubi</i> (1965). Ondarrak ere <i>arrubi</i> . Harrobia adierazten du toponimo honek. Asko ageri da inguruko herrietako toponimian.
ATSUENLIYOSOROTA Atsuenliyosorotako txelaya	B1 A1 A1 A1	NTM-n <i>atxolinsoroeta</i> eta Ondarrak jaso gabe. Bere osagaiak <i>atsoaren</i> + <i>liho</i> + <i>soroeta</i> dira, atsoren batek lihoa lantzeko soro eremua adierazten duelarik. Ugari dira ‘lihosoro’ak Sakanako toponimian. Lehen eratorrian,

Atsuenliyosorotako errekia Atsuenliyosorotako pasua	A1	‘zelaia’-ren txistukaria palatalizaturik ageri da; bigarrean Burunda hizkeran ohikoa den <i>-a + -a > -ia</i> bilakabidea; eta hirugarrenean <i>-o + -a > ua</i> disimilazioa.
AUNTZETXE Auntzetxeke atzekaldia	AB2 AB2	Horrela ageri da jasoia bai NTM-n (1965ean dokumentatua), bai Ondarraren lanean. Basoan abereak, eta bereziki ahuntzak, biltzeko borda edo tokia adierazten du. Eratorriak toponimo honen gibela edo atzealdea adierazten du. BB-k (1993, 101) horrela azaltzen du: “Cubierto para el ganado”.
AUNZTAIZAR	A2	Ez da ageri NTM-n eta Ondarrak ere ez du jaso. <i>A(h)untz + tai + za(ha)r</i> dira bere osagaiak. <i>Tai</i> -a ‘tegi’-tik dator (<i>tegi > tei > tai</i>), eta abere eta artzaintzat egindako estalpe edo borda txikia izango genuke, Pedro Miguel Kintanak esaten didanez <i>iyostorra-z</i> (‘garoa’) eginak izaten dira; <i>ellorra</i> Etxarri-Aranatzen. Ahuntzendako borda edo estalpe zaharra, beraz.
AUZMENDIN TAIZARRA	A2	Hau ere ez da ageri ez batean, ez bestean. <i>Auzmendi</i> abizeneko baten ‘tai’ zaharra, beraz. <i>Auzmendiren ></i> (bokal arteko dardarkariaren galera) <i>auzmendien ></i> ($V_1V_2 > V_1V_1$) <i>auzmendiin ></i> ($V_1V_1 > V_1$) <i>auzmendin</i> da bere bilakabidea.
BAZTARRIKAN TAIYA Baztarrikan gaztainaldia	A2 A2	NTM-n <i>baztarrikaren tegi zahar</i> , baina <i>baztarrikan-taizar</i> dokumentaturik (1965, Ondarra). Aurrekoaren antzekoa, <i>Baztarrikaren + tai</i> -a. Eratorriaren bigarren zatia lehenago azaldu dugu.
BENTATXAR Bentatxargo puntia Bentatxargo txelaya	B1 B1 B1	Horrela ageri da NTM-n dokumentaturik (1965, Ondarra). ‘Lapurbide’-ren ondoan, Etxarriko mugan (hemen ere ezaguna da toponimo hau), atsedean edo ostatu hartzeko leku desegokia dela adierazten duelarik. Lehen eratorrian, berriz ere, <i>-a + -a > -ia</i> bilakabidea.
BIAITZETA	B1	Horrela ageri da jasorik NTM-n, 1965ean (Ondarra) dokumentaturik. Berriz ere osagaietako zalantza sortzen du toponimo honek, baina logikari jarraituz gero ‘haitz’ izan beharko litzateke bigarren osagaia, harritzekoa litzatekeelako bi haritzez osaturiko basoko eremua aipatzea. Osagaiak, beraz, <i>bi + (h)aitz + -eta</i> izango genituzke.
ERREMENTAYEN GAZTAINALDIA	A2	NTM-n <i>errementarigaztainaldia</i> jaso dute, eta 1965ean (Ondarra) dokumentatzen dute, <i>erremental-gaztainaldi</i> . Baina Ondarraren lanean ez da horrela ageri, <i>errementaigaztainaldi</i> baizik. Toponimoaren bigarren zatia azaldua dut dagoeneko, eta lehenak ondorengo bilakabidea izan du: <i>errementariaren > errementaiaen > errementaien > errementayen</i> . Horrela dakar BB-k (1993, 155): “Errementariya: herrero”.
GALTZETINETA Galtzetinetako errekia Galtzetinetako zuiya	A1 A1 A1	NTM-k <i>galtzateneko zubia</i> jaso du Ondarraren (1965, <i>galtzateneko-zuia</i>) lanean dokumentatuz. Nik entzundako moduan jaso dut, <i>galtzetineta</i> , eta osagaietako degokienez soilik azkenak, <i>-(e)ta</i> atzizkiak, dirudi agerikoa. Lehen, <i>galtzada</i> izan daiteke, oso ezaguna delako bertako topo-

		nimian, baina erdiko osagai sudurkariduna (- <i>tin</i> / - <i>din</i> , Berako 'ibardin'-en gisakoa?) ez dago nondik datorkeen jakiterik. Toponimo eratorrietako azkenak, bigarren zati-ko burutzapenean ezpainetako herskariaren galera eta igurzariaren epentesia jasan ditu: <i>zubi</i> > <i>zui</i> + <i>a</i> > <i>zuiya</i> .
IBARBELTZ Ibarbelzgo langia	A2 A3	NTM-n eta Ondarraren lanean toponimoa eratorria dator, <i>ibarbelzgo langea</i> lehenean, eta determinatu gabe bigarreanean. <i>Ibar</i> + <i>beltz</i> ditugu osagaiak, haran iluna, hots. Eratorriko lehen zatiak <i>l,n,r</i> ondorengo frikariaren eta herskari ahostunaren aldeko neutralizazioa erakusten du, <i>aranbelzgo</i> (< aranbeltzeko); eta bigarren zatiak, berriz, - <i>a</i> + - <i>a</i> > - <i>ia</i> bilakabidea.
IRUITURRITA	B1	Ez dator orain arte aipatu ditudan dokumentuetan. Etxarriko toponimian, aldiz, ageri zaigu hortzetako herskaria palatalizaturik eta bukaerako bokala asimilaturik: <i>iruiturrite</i> . Bere osagaiak ondorengoak ditugu: (<i>h</i>) <i>iru</i> + <i>iturri</i> + - <i>eta</i> .
IRUMUGETA Irimugetako iturriya	B1 B1	Horrela ageri da NTM-n eta Ondarrarengan. Ataun, Etxarri-Aranatz eta Bakaikuko muga dago bertan, mugarrria eta guzti, eta horixe adierazten toponimoak. Etxarriko toponimian herskari belare ahostuna ezpainetakoaren alde neutralizaturik, <i>irumubeta</i> , ageri da. Eratorriak ez du inongo arazorik ulertzeko.
IYARTXIKITA	B1-2	NTM-n <i>iartxikieta</i> , eta Ondarrak <i>i(y)artxikita</i> jaso zuen. Lehen osagaian zintzurreko kontsonantea, /h/, sabaikaritu egin da, Sakana guztian ohikoa den moduan: <i>iyartu</i> (ihartu), <i>iyesi</i> (ihesi), <i>biyar</i> (bihar), <i>biyurri</i> (bihurri), <i>giyar</i> (gihar), <i>iy</i> (eho), ... Osagaiak, bestalde, begibistakoak ditugu: <i>ibar</i> + <i>txiki</i> + -(<i>e</i>) <i>ta</i> .
JENTILZULO Jentilzuloko puntia	B1 B1	Ondarrak ez dakar, baina bai NTM-k, hemen jaso dudana moduan. Trikuharriaren sinonimoa da 'jentilzulo'a Sakana osoan. Azalpen luzea eman dute NTM-n: "Alrededor de este nombre se han concentrado varios temas míticos de distinta procedencia. <i>Jentil</i> era el hombre salvaje, dotado de fuerza extraordinaria, que vivía en la montaña en una casa lejana; el pagano que generalmente vivía en paz con los cristianos pero aislado de estos (...)". Etxarriko toponimian <i>txaigorriko jentilzulue</i> dago, aipatu eremuko trikuharria adierazten duelarik. Eratorrian, berriz, - <i>a</i> + - <i>a</i> > - <i>ia</i> bilakabidea.
JOXEPAN GAZTAINALDIA	AB2	<i>Joxeparen gaztainaldia</i> NTM-n. Ez da ageri Ondarrarengan. Beste gaztainadi bat adierazten digu, oraingoan Joxeparena. Eta hauxe, bilakabidea: <i>joxeparen</i> > <i>joxepaen</i> > <i>joxepaan</i> > <i>joxepan</i> .
LAPURBIDE Lapurbideko txelaya Lapurbideko siyatsa	A1 A1 A1	Horrela jaso dute NTM-n eta baita Ondarrak ere. Etxarri ere horrela esaten zaio eremu honi. Etxarri-Bakaiku eta Ataun lotzen zituen aspaldiko bidea izango genuke, eta ematen duenez ez zen oso segurua izango, honetaz gain, ondoan baitaude <i>bentatxar</i> eta <i>zelatamuno</i> toponimoak ere. NTM-n ondorengo azalpena ematen

		dute: “Según recoge José María Satrústegui, <i>lapurbide</i> es un camino que va del puerto de Bakaiku hacia Guipúzcoa sin pasar por el puesto de miqueletes, eludiendo así el pago del impuesto de arbitrios”. Toponimo eratorrietako bigarren zatiak azalduak ditut dagoeneko beste toponimo batzuetan.
LARRATZAN TAIZARRA	B2	NTM-n soilik dator, horrela azaldua: “Según el informante se trata del apellido del antiguo dueño”. Gogoratu <i>aunztaizar</i> toponimoa azaltzerakoan esandakoa. Beraz, ‘Larratza’-ren borda zaharra izango genuke toponimoa-ren esanahia.
LIXIBERRIZARGO ESPALDA	A1	Horrela dator Ondarraren lanean, eta <i>lixuberrizarko bizkarra</i> NTM-n. Ondarrak bere hiztegian (1965, 13) horrela azaldu du ‘lixiberri’: “vasija en que se hace la colada; era de piedra”. Arropa garbitzen zuteneko haitzaren atzealdea (<i>espalda</i>) adieraziko luke, orduan, toponimo honek. Aipagarria /r/-ren ondorengo herskari ahostunaren aldeko neutralizazioa: $-r + k/g > -rg-$.
LIZARDI Lizardiko errekia Lizardiko txabala Lizardiko zulo	B2-3 B2-3 B2 B2	Horrela jasoa NTM-n, eta Ondarraren lanean (1965) dokumentatua. Bigarren eratorria ere jaso dute biek. <i>Lizar</i> + <i>-di</i> dira bere osagaiak, eta lizarrak dauden tokia adierazten du, beraz.
MAIXELEN KURUTZA	AB3	Horrela ageri da NTM-n, eta ez zuen jaso Ondarrak. <i>Marixelaren gurutzea</i> adierazten du, eta lehen zatia emakumearen izena dugu, oso ezaguna Sakana osoan gutxienez: ‘Maria Celestina’-ren burutzapena izango genuke, dardarkariaren galera eta txistukariaren palatalizazioa jasan dituelarik. Bigarren zatiko burutzapenean herskariak ahoskabearen aldeko neutralizazioa izan du.
MANDAKAMIYUA	B1	<i>Mandakamioa</i> NTM-n, eta Ondarrak ez dakar. Mandoak erabiltzeko bidea adierazten du, ederki jasotzen duelarik hitz konposaketako <i>-o-z</i> bukatutako lexemen bokal irekiera: <i>astaputz</i> , <i>pagadi</i> , <i>usategi</i> , ... Ondorengo azalpena dator NTM-n: “Mandakamio, ‘camino de mulas’ es una de las denominaciones vascas de la <i>calzada</i> o camino empedrado. La <i>calzada</i> de Urbasa a Zunbelz recibe por ejemplo los dos nombres, <i>galtzada</i> y <i>mandakamio</i> , indiferentemente”.
MANDUBITA Mandubitako zuiya	B3 B3	Horrela jaso zuen Ondarrak, eta NTM-n <i>mandubieta</i> , ondorengo azalpena ematen dutelarik: “Este topónimo, el anterior, y la presencia de <i>galtzada</i> - en la toponimia de Bakaiku, denuncian una <i>calzada</i> en el término. José María Satrústegui señala que ‘La ruta tradicional que daba acceso a los mercados de Guipúzcoa y enlazaba sus costas con Estella y la Ribera de Navarra pasaba por el puerto de Iturmendi, que a partir de Santa Marina atravesaba la meseta por el raso de Ezkiza para descender a los valles del S. Por el puerto de Baquedano. Comentando este extremo con vecinos de Iturmendi, uno de ellos me indicó que hubo otro camino anterior llamado <i>Mandobita</i> o <i>Mandobideta</i> . Iba aproximadamen-

		te por la divisoria actual de los montes de Iturmendi y Bacáicoa'. Esta debe ser la calzada que denuncia la toponimia". <i>Mando + bide + -ta</i> izango lirateke, orduan, bere osagaiak, bigarrena apokopaturik agertuz egungo burutzapenean. Eratorriko burutzapena azaldua dut lehenago.
NABARZABAL Nabarzabalgo siyatsa	B2 B2	Horrela ageri da bi dokumentuetan. <i>Nabar + zabal</i> ditugu bi osagaiak, eta leku laua adierazten digu bigarrenak, lehenak kolorea edo agerikoa dela adieraziko lukeelarik. MB-k (297) Etxalar-en <i>nabarlatsa</i> toponimoa jaso du, ondorengo azalpena emanez: "... El primer elemento es <i>nabar</i> 'color pardo', quizá haciendo referencia al nombre o apodo de una persona". Aipatzekoa, berriz ere, lekuzko genitiboaren herskari ahostunaren aldeko neutralizazioa. <i>Siyatsa</i> , bestalde, lehen esan dudana bezala, hezetan handiko tokia litzateke. Horrela azaldu dute NTM-n: " <i>Siats</i> es un genérico vasco corriente en Navarra en Barranca, Burunda, Aralar y Urbasa, e incluso en zonas alejadas como Roncal, Salazar y Aezcoa. Designa zonas de hierba donde el agua de lluvia no filtra, encontrándose siempre empapadas, sin llegar a acumular capa de agua. Los <i>siatses</i> son al parecer muy malos para el ganado, que enferma de comer su hierba. En el castellano de Améscoa se conserva la palabra como <i>siaché</i> ".
PLEITUKO BIXKARRA	A2	<i>Pleituko bizkar</i> NTM-n, eta ez zuen jaso Ondarrak. <i>Bixkarra</i> muino edo mendixka adierazteko erabiltzen da, txistukaria palatalizaturik ageri delarik. Lehen osagaiak, berriz, iturmendiarrekin izandako auzia adieraziko luke.
SAGARMINSAI Sagarminsaiko entrada Sagarminsaiko errekia	AB2 AB2 AB2	Horrelaxe jaso zuen Ondarrak, eta <i>sagarminsaiko sarrerea</i> NTM-n. <i>Sagarmin + sare</i> edo <i>sari</i> izango lirateke bi osagaiak. Lehen, berez sortzen den sagarrondo mota da, mingotsa; eta, bigarrena, gauzez aberak biltzeko tokia, edo sagaminak saltzeagatik lortuko den prezio edo saria (Etxarrin, esaterako, <i>apotesai</i> erabiltzen zen txerri arra emeari botatzeagatik ordaindu beharrekoa adierazteko). Bigarren honen bilakabidea hauze litzateke: <i>sare > sae > sai / sari > sai</i> . NTM-n horrela azaldu dute: " <i>Sagarmin</i> es palabra vasca, muy común también en castellano, que designa las manzanas silvestres o <i>manzanicas de pastor</i> ". Baina azken hauek ez dira 'sagarminak', <i>ma(i)zpilak</i> baizik.
SANRITA Sanritako errekia	B2 B1-2-3	Horrela jaso dute bi dokumentuetan. Etxarriko eremuko mugako 'Sanadrian'-en parean dago, eta badirudi jatorri berdineko toponimoa dugula, hortzetako herskariaren txandaketa eta metatesia jasan dituelarik: <i>san(a)dria(n) > santria > sanrita</i> . Eratorrian, aurrekoan bezala, <i>-a + -a > -ia</i> bilakabidea dugu.
URKIDI Urkidibarrena Urkidiko larria	A1 A1 A1	Horrela ageri dira bi dokumentuetan. Osagaiak <i>urki + -di</i> dira, eta 'urki'-ak dauden tokia adierazten digu. NTM-n horrela diote: "El topónimo nos habla de la presencia de abedules (<i>urki</i>) en el paraje". Lehen eratorriak beste osagaia du, <i>barrena</i> , Sakana erdialdearekiko bereizgarria, 'barne' esaten baita aipatu eremu honetan. Bigarrenak,

		Sakana osoan hain ezaguna den 'larre' (<i>larre</i> + <i>-a</i> > <i>larria</i>) hitza dauka, belardi edo pentzea adierazten duelarik.
ZOTOLAZARRETA Zotolazarretako iturriya	B1 B1	Hau ere horrela jaso bi dokumentuetan. NTM-n hauxe gaineratu diote: "Zotola es un genérico local, que aparece también al sur de Urbasa; significa pocilga, abrigo en el monte para ganado de cerda. Etimológicamente parece significar 'cabaña hecha de tepes'. 'Txerriyen hotela', comenta humorísticamente el informante. Se utiliza también en castellano, según Iribarren, en Cirauqui, Roncal y Obanos, y probablemente en más sitios". <i>Zobi</i> + <i>ola</i> + <i>za(ha)r</i> + <i>-eta</i> dira bere osagaiak, eta lur-zati irauliaz egindako txabola zaharren eremua adierazten du.

b) Aurreko eremua mugatzen duen errekatik Burunda ibairainoko eremuko toponimoak:

AIZKOAZAR Aizkoazargo arriya	B3 B3	NTM-n <i>aizkorazar</i> , eta Ondarrak <i>aizkurazar</i> . Egungo burutzapenean dardarkari xamurra argi eta garbi galtzen da. <i>Aizkora</i> + <i>za(ha)r</i> dira bere osagaiak, eta dirudienez bertan agertu zen Nafarroako Museoa dagoen Historia aurreko harrizko aizkora handi leundua.
AIZTIYA	B4	Horrela jaso zuen Ondarrak ere, eta NTM-n, berriz, <i>arizti</i> . 'Urkidi' eta 'lizardi'-ren parekoa izango genuke, haritz lekua adierazten duelarik.
ALDEKO ENTRADA	C3	Horrela Ondarrak eta <i>aldeko sarrerea</i> NTM-n. Bakaikuko dermioko alde bateko sarrera izango genuke, beraz.
ALKAZAR	C4	Horrela dator bi dokumentuetan, eta NTM-n dokumentazio ugarirekin: <i>alcazar</i> (1703-1705-1893), <i>arcázar</i> (1893), <i>alkazar</i> (1965). Bigarren osagaiak begi bistakoa dirudi, eta lehena <i>alka</i> (bere kabuz sortzen den 'olo'a). MB-k (52) antzeko toponimoak jaso ditu, <i>alkaxuri-alkozarko gaina-alkurruntz</i> , Erratzu, Eugi eta Amaiurren, eta ondorengoa esaten du: "Del vasco <i>alka</i> 'avena silvestre' ..."
ALTZITURRITA	C4	Ondarrak berdin, eta NTM-n <i>altziturrieta</i> , oso dokumentaturik: <i>alziturrieta</i> (1697-1725), <i>alciturrita</i> (1893-1907), <i>alzaiturrita</i> (1893). <i>Haltz</i> + <i>iturri</i> + <i>-ta</i> dira bere osagaiak, eta haltzak eta ura dagoen lekua adierazten du.
ANDAPOTA	B4	Horrela jaso dute NTM-n Ondarrarengandik jaso. Ez dakit nondik datorkeen toponimo hau. <i>Apote</i> hitza ezaguna da Sakanan, 'aketz'-aren esanahiarekin erabiltzen delarik. K. Izagirrek (1967, 51) horrela jaso zuen Altsasun: " <i>apo batzuk</i> unos cerdos sementales". Lehen osagaia, '(h)andi' izan daiteke.
APIZAN ARRUBIYA Apizan arrubiko kanteria	BC3 BC3	NTM-n <i>apizaren harrobia</i> eta dokumentatua (1965) <i>apizanarrubi</i> . <i>Ap(a)iza(re)n</i> + <i>(h)arrubi</i> dira bere osagaiak, horrela burutzen baitira egungo bakaikueran bi hitz hauek. Lehenak edute genitiboko atzizkiaren dardarkari samurra- ren galera erakusten duelarik, eta bigarrenak asimilazio

		atzerakaria: <i>arrobi</i> > <i>arrubi</i> . Toponimo eratorriak errepikatu egiten du osagaietarikoa bat, gauza bera baitira 'harrobi' eta 'kantera'. Hala ere, ederki erakusten dute bokalez bukatuturiko lexemen burutzapenak mugatzailea eransterakoan: <i>-i + -a > -iya, arrubiya; -a + -a > -ia, kanteria</i> .
ARBOBIL	BC4	Horrela dokumentatu dute (1965) NTM-n, baina <i>arborobil</i> jaso dute haiek. (<i>H</i>) <i>arri</i> + <i>borobil</i> izango genituzke bere osagaiak. Berriro ere, bigarren osagaien dardarkari samurraren galera gertatu da. Bitxia suertatzen da, hala ere, osagai honen burutzapena, eguneroko hizkeran 'biri-bil' erabiltzen baitute bakaikuarrek.
ARKAIZTO	C3	Horrela ageri zaigu bi dokumentuetan. (<i>H</i>) <i>arri</i> + <i>gaizto</i> dira bere osagaiak, eta bigarrenak txandakatu egin du herskari belare ahostuna ahoskabeagatik, dardarkariaren ondoren.
ARTOLAN OBRA	B4	Ez da ageri ez dokumentu batean, ez bestean. <i>Artola(re)n</i> + <i>obra</i> dira bere osagaiak, eta izen horretako norbaitek egindakoa gogoratzen digu.
ARRATATXABAL	B3	Horrela ageri zaigu bi dokumentuetan. Hurrengo toponimoak du, nire ustean, toponimo honen osagaien giltza, horren ondoren baitator Bakaikuko beheko basoan: (<i>h</i>) <i>arri</i> + <i>a(r)te</i> + <i>txabal</i> . 'Harri a(r)teko zabala' izango genuke, beraz, bere esanahia, azken osagaiak 'zelaia' adieraziz..
ARRARTETA Arrartetako iturriya	BC4 BC4	Hau ere horrela ageri zaigu beste dokumentuetan. NTM-n hurrengo azalpena ematen dute: " <i>Arrate</i> (hemen dugu aurrekoaren burutzapena) o <i>arrate</i> es un genérico vasco transparente (<i>harri</i> 'roca', y <i>ate</i> o <i>arte</i> 'portillo, paso'), común a toda la Navarra vascoparlante, que significa desfiladero".
ARRIZULAN	B3	Horrelaxe ageri da jaso beste dokumentuetan ere. Lehen osagaia, (<i>h</i>) <i>arri</i> , begibistakoa genuke, baina gainerakoa ez da batere ezaguna, eta beste toponimo batean ere ageri zaigu: <i>zulanpe</i> . Ondarrak (1965, 21) ere horrela markatu zuen toponimo honen atzean (v. <i>Zulanpe</i>).
ARTASORO	BC3	Horrela dago jaso beste dokumentuetan, eta oso nabariak dira bere bi osagaiak: <i>arto</i> + <i>soro</i> . Etxarriko toponimian ere ageri da, dardarkari samurrik gabe gehienetan, Bakaikukoaren ondoan.
ASTIGARRETA	C4	Horrela dago jaso eta dokumentatua (1893, 1965). NTM-n horrela azaldu dute: "El topónimo nos habla de la presencia en el paraje de arces (<i>astigar</i>)". <i>Astigar</i> + <i>-eta</i> dira, beraz, bere osagaiak.
ASTURIANUEN ITURRIYA	C3	Ez dute jaso beste dokumentuetan. Esaten didatenez, basagizon asturiarrak ibili ziren lantegia ateratzen Bakaikun duela urte asko, eta orduz gero geratu zaio izen hau leku honetako iturriari. Edute genitibo pluraleko

		morfema eransterakoan, disimilatu egin da lexemaren bukaerako bokala: <i>asturiano</i> + <i>-en</i> > <i>asturianuen</i> .
ATXITALEN Atxitalengo irriatuba	B3 B3	Modu berean jaso ageri zaigu beste dokumentuetan. Ez daude batere argi bere osagaiak, eta soilik erdikoa, <i>-(e)ta</i> atzizki eratorlea, izan daiteke nahiko nabaria. Lehenari, <i>atxi</i> -ri, dagokionez bi jatorri desberdinen aurrean egon gitezke: <i>(h)aitz</i> , antzeko azalpena ematen digu MB-k (2000, 98) Sorakoitzeko ‘axixuri’ toponimoaren aurrean: “Del vasco <i>zuri</i> ‘blanco’ y un primer elemento no identificado pero que, quizá, sea vasco <i>haitz</i> ‘peña’”, eta Lekarotzeko ‘atxuela’ (94): “Quiza del vasco <i>haitz</i> ”, eta dokumentazioan horrelaxe dakar: “Aciola (1571) ... Atchiola (1793)”; eta <i>atxi</i> , K. Izagirrek (1967, 53) horrela jaso zuen bere lanean: “ <i>atxikueza</i> ‘el palo con el que se lanza la tala’, <i>iru atxikuez. atxiya</i> ‘la tala’, <i>iru atxi</i> ”. Toponimo eratorriko bigarren zatia, <i>irrigatu</i> -a (ureztatu) izango genuke, bokal arteko herskari belare ahostuna galdu delarik, eta ur asko dagoen tokia adieraziko lukeelarik.
AUNZBIDE Aunzbideko kanteria	BC4 B4	Toponimo eratorria baino ez da ageri beste dokumentuetan. <i>A(h)untz</i> + <i>bide</i> dira bere osagaiak.
AZKONTEITA	B3	NTM-n <i>azkondegiet</i> a eta <i>azkontait</i> a (1965) dokumentaturik. <i>Azkon</i> + <i>-tegi</i> + <i>-eta</i> dira bere osagaiak, baina ez dakit lehenak ‘gezi’-a ala ‘azkonar’-a adierazten duen. ‘Azkon’ hitza ez da ezaguna esparru osoan, baina bestalde, ‘-tegi’ atzizki eratorlea lanari edo landareei lotua ageri da gehienetan inguruko toponimian (<i>taizarra</i> , <i>lantei</i> , <i>lapurlant</i> ei, <i>pagadei</i>), eta animaliekin, berriz, haien lekua adierazteko askoz ere erabiliagoa dugu ‘zulo’ osagaia: <i>azkonarzulota</i> , <i>axaizulota</i> Etxarrin.
BASALDIA	BC4	<i>Basalde</i> NTM-n eta <i>basaldea</i> Ondarrak. <i>Baso</i> + <i>aldea</i> izango genituzke bere osagaiak, nekazalgorako lurrik bukatu eta basoko eremua hasten den tokia adierazten du.
BIKALABETA Bikalabetako zulua	B3 B3	NTM-n, Ondarrarengandik jaso, <i>ikalabeta</i> jaso dute, eta hauxe azaltzen dute: “ <i>Ikalabe</i> es en vascuence local carbonera”. Sakana osoan barrena, eta Bakaikun ere bai jakina, <i>txondar</i> / <i>txondor</i> jaso ditut nik neuk aipatu ‘carbonera’ adierazteko. <i>Kalabe</i> -a, aldiz, ‘karelabe’-a izango genuke, ondoko Etxarri-Aranatzen ‘galtzinlabe’ den moduan, eta ugari dira bertako basoan gelditzen diren karea egiteko labe hauen aztarnak. <i>Bi</i> + <i>ka(re)</i> + <i>labe</i> + <i>-(e)ta</i> izango lirateke bere osagaiak, orduan. Eratorriak ez du azalpen askorik behar.
EPEL Epeltziki Epelgo liyosorua	BC3 C3 BC3	Horrela jaso dute bi dokumentuetan. Karasatorrek (BB, 150) ondorengo azaltzen du: “... se trata de un paraje bien protegido de los vientos ...”. Horrela beraz, toki ‘epela’ adieraziko liguke. Bigarren eratorriko bigarren zatia, ‘liho soroa’ da, eta NTM-n <i>epelgo lionsoroeta</i> jaso dute, hauxe gaineratuz: “ <i>Liosoro</i> es un genérico vasco que significa ‘linar, campo de lino’. Su frecuentísima presencia en toponimia nos indica la extensión y ubicuidad que

		tuvo en Navarra el cultivo del lino para uso doméstico (fabricación de lienzos)”.
ERREKAGAIZTO	C3	Modu berean jaso dute beste bi dokumentuetan. Osagaiak begibistakoak ditugu: <i>erreka</i> + <i>gaizto</i> . Etxarriko mugan dago toponimo hau.
ERRETEEN	B4-5	Ondarrak ez zuen jaso, eta NTM-n <i>erretentalde</i> eta <i>erretentaldeko bidea</i> ageri zaigu. ‘Erreten’ ubide edo kanaleari esaten zaio Bakaikun, ‘ <i>azekiyé</i> ’ Etxarrin. Errotaraino ura eramaten duen ubidea izango genuke, beraz.
FABRIKALDIA	B4	Ez da ageri NTM-n eta Ondarrak <i>fabrikondo</i> jaso zuen. <i>Fabrika</i> + <i>alde</i> dira bere osagaiak, eta bigarrenak inguru edo eremua adierazten du, ‘ondo’-k bezala.
FABRIKAZAR Fabrikazargo kanteria Fabrikazargo iturriya	B3 B3 B3	Hau bai, ageri da bi dokumentuetan, eta NTM-n <i>fabrikazargo iturria</i> ere bai. Lekuzko genitiboak dardarkariaren ondoren herskari ahostunaren aldeko txandaketa burutzen du: <i>fabrikazar</i> + <i>-ko</i> > <i>fabrikazargo</i> .
GAINTZAN ARRUBIYA Gaintzan arrubiyako kanteria	C3 C3	Ondarrak soilik jaso zuen <i>geintzan-arrubi</i> burutzapena, eta “(de Gainza)” gaineratzen du. Gaintza izeneko norbaiten harrobia adierazten du, orduan. Eta eratorriak ‘harrobiko harrobia’, berriro.
GALTZA(DA)ZARGO SABOYA	C4	Ez dute jaso NTM-n, eta Ondarrak <i>galtzazargo-saboya</i> dakar. Garbi dago, ‘galtzada zaharra’ adierazten duela, eta bigarren zatiak, ‘saboya’-k, eremu edo ingurua adierazten du.
GALTZAMAKUR	B3	Horrela dator Ondarraren lanean, eta <i>galtzadamakur</i> NTM-n, ondorengo adierazten dutelarik: “ <i>Galtzada</i> es el equivalente vasco, general en toponimia navarra, del castellano calzada. La idea fundamental es la de camino pavimentado. En este sentido en zona vasca sufre la concurrencia de mandakamio y mandabide”. <i>Galtzada</i> + <i>makur</i> osagaiak, eta bide ez zuzena adierazpenaren aldetik, beraz. Burutzapen sinkopatua dugu.
GALTZAMUSU Galtzamusuko zuiya	C4 C4	Modu berean Ondarrak, eta <i>galtzadamusuko errekea</i> , <i>galtzamusuko langia</i> eta <i>galtzamusuko zelaia</i> NTM-n. Bigarrenaren azalpen moduan ondorengo dakarte: “ <i>Musu</i> ‘cara, rostro’ es una de las muchas partes del cuerpo que aparecen en la toponimia vasca. Parece significar lo mismo que <i>aurre</i> , es decir, delante, frente a. En este caso se trataría de un paraje situado frente a una antigua calzada”. Eta neuk ere, horrela dela uste dut.
IPURUBIYA	C4	Jasoa dute NTM-n Ondarrak egin zuen moduan, eta dokumentatua <i>ipurudia</i> (1708), <i>yburubia</i> (1893), <i>ypurubia</i> (1893), <i>ipurubia</i> (1965). Nire ustean, 1708ko burutzapena izango litzateke zuzena, nahiz eta gaur egun hortzetako herskaria beharrean ezpainetakoa argi eta garbi erabili. Horrela beraz, <i>ipuru</i> + <i>-di</i> (‘ipuru tokia’) lirategi bere osagaiak, eta ondoren <i>-i-z</i> bukatu-rik hitzak mugatzera-koan jasaten duten bilakabidea izango luke: <i>-i</i> + <i>-a</i> > <i>-iya</i> .

IRABARREN	C4	NTM-n <i>iribarren</i> eta dokumentaturik: <i>idiabarren</i> (1712), <i>yribarren</i> (1893), <i>yribarren</i> (1907), <i>idabarren-iriabarren</i> (1965). Nik, zalantzarik gabe, hemen aipatu moduan jaso dut. Osagaiak <i>ira</i> + <i>barren</i> izango lirateke, eta eremuan bada ‘garo’ edo ‘ira’ ugari. Oso hedatua dugu lehen osagaia Nafarroako toponimian: <i>iraigorri</i> (Etxarri), <i>irain</i> (Goizueta, MB, 213), <i>irakurri</i> (Ezkurra, MB, 214), <i>iralbeltz</i> (Garaioa, MB, 214), <i>iramendi</i> (Zubieta, MB, 214), <i>iraperri</i> (Almandoz, MB, 214), <i>irasabela</i> (Narcué, MB, 214).
IRUANKAKO ZALDIYA Iruankako zaldibarrena	C4 C4	Ez dator NTM-n, baina bai Ondarraren lanean. Begi bistakoak dira bere osagaiak eta esanahia. Aipatzekoa da eratorriko bigarren zatiko azken osagaia, <i>barrena</i> , ondoko Sakana erdialdean bere forma sinkopatua, <i>barna</i> , erabiltzen baita.
ITURBIX Iturbixko iturriya Iturbixko zelaya Iturbixko zidarra	C4 C4 C4 C4	NTM-n eta Ondarrak <i>iturbotx</i> . Oso nabaria da lehen osagaia, eta bigarrena, nire ustean, <i>bix(i)</i> izan daiteke, hots, ura ‘bixi-bixi’ ateratzen den iturria. Hirugarren eratorrian <i>zidarra</i> -k, ‘zeharra’ edo ‘malda’ adierazten du.
JITOLANGA	C4-5	Horrela dago jaso beste bi dokumentuetan. NTM-n ondorengoa gaineratu diote: “Paraje también conocido como ALKAZAR. Jitolanga es nombre festivo (“la langa de los gitanos”), que le pusieron porque pasaban por allí muchos gitanos. Su nombre auténtico es el otro”. Nik bi toponimoak jaso ditut, elkarren ondoan, baina bereizirik. ‘Langa’ oso hedatua dugu inguruko toponimian, eta bideetako pasa mozteko erabiltzen den haga luzeez, egun metalezkoa ere bai, osaturiko ate modukoa izango genuke. ‘Jito’, bestalde, ijitoren burutzapen aferesiduna da.
KATILUTXO Katilutxoko iturriya	B3 B3	Modu berean beste bi dokumentuetan. ‘Katilu’-a ‘auzate’-etan udalak, ‘buruzai’-aren medioz, herritarren artean ardoa banatzeko erabiltzen duen ontzixtoa dugu, kasu honetan atzizki txikigarria erantsi zaiolarik. Toponimoak azaltzen duen eremua, beraz, ‘katilu’ baten antzekoa litzateke, dolina baten modura.
KOSTABIXKAR Kostabixkargo mintaiya	BC3 BC3	Ez du Ondarrak jaso, baina ageri da NTM-n, modu berean jasorik, hurrengo azalpena eta guzti: “ <i>Bizkar</i> es un genérico vasco, todavía usado en el castellano de muchos pueblos, singularmente en la Cuenca de Pamplona, bajo diversas variantes: <i>bixker</i> , <i>biskar</i> , <i>biskarro</i> , <i>bixkerro</i> , ... etc., y ubicuo en toponimia vasca de Navarra. En su sentido propio es ‘espalda’, pero como nombre geográfico significa ‘loma’. Es de notar que el vascuence vivo tiende a pronunciar <i>bizkar</i> para ‘espalda’, y <i>bixkar</i> , sistemáticamente, para ‘loma’”. ‘Muino’-aren sinonimotzat har dezakegu, beraz, toponimo honen bigarren osagaia, eta lehena, <i>kosta</i> , seguruenera, ‘ko(ro)sti’-tik datorkigu, horrela burutzen baita lexema hau Sakanako esparru osoan, dardarkaria galdu eta bokal murrizpena jasaten dituelarik. Eratorriko bigarren zatian, ondorengo bilakabidea izan da: <i>mintegi</i> > <i>mintei</i> > <i>mintai</i> + <i>-a</i> > <i>mintaiya</i> .

LARTZEKO LIYOSOROTA	B3	Ondarrak <i>lartzeko-lioseta</i> eta NTM-k <i>larratzeko liansoro-eta</i> jaso dituzte. Azken dokumentu honetan horrela azaldu dute: “La etimología popular lo interpreta como ‘Lartzeko Olean Sorota’, es decir, las piezas de alguien apellidado Olea. Se trata de unos linajes (<i>liansoro, liosoro</i>)”. Baina nondik, orduan, ‘lihosoro’-arena? Nire ustean, toponimoaren lehen zatia, ‘larratza’-tik dator, lehenago ikusi dugun <i>larratzen taizarra</i> toponimoak erakusten duen osagai berbera erabiliz. ‘Larr(a)tz(an)eko lihosoroeta’ izango litzateke, horrela balitz, bere esanahia.
LEKUIN	B4	<i>Lekorin</i> NTM-n, hurrengo burutzapen dokumentatuak erakutsiz: <i>lecorin</i> (1712), <i>lecauni</i> (1893), <i>lecuain</i> (1893), <i>licoain</i> (1893), <i>lekuin</i> (1965); eta <i>Lekuein</i> Ondarrak. <i>Leku</i> + (<i>ga</i>)in izan daitezke bere osagaiak, hau da, Burunda ibai ondoko leku altua.
MADURA	B4	Modu berean bi dokumentuetan, eta horrela dokumentatua ere 1893, 1907 eta 1965ean. NTM-n gainera, hurrengo azalpena ematen dute: “La voz <i>padura</i> y sus equivalentes <i>fadura</i> y <i>madura</i> tienen el mismo origen que las romances <i>paul</i> o <i>padul</i> , la voz latina <i>padule</i> metátesis de <i>palude</i> , designando un lugar especialmente húmedo”. Toki oso <i>siyetsa</i> , hezetasun handikoa, izango litzateke.
MAIZPELUZ	B3	Ondarrak <i>maizpeluzgo-punta</i> , eta NTM-n ez dator. Bere osagaiak <i>ma(i)zpil</i> + <i>luze</i> izan daitezke, mazpila, ‘sorbus torminalis’ zuhaitza, ezaguna baita.
MALENTXON BORDA	B4	Ez dute jaso beste bi dokumentuetan. <i>Ma(da)lentxo(re)n</i> eta <i>borda</i> dira bere osagaiak, bigarrena oso osorik ageri zaigu, eta lehena hainbat kontsonanteren galera eta bokal murrizpena jasan dituelarik.
MIELRAMONEN TXOZIA	C3	Hau ere ez du jaso Ondarrak, baina bai NTM-k: <i>migel ramonen txozea</i> . Aurrekoaren modura, lehenik pertsonaren izena, eta ondoren jabegoa, ‘txoza’ oraingoan. Ehiztaria izango genuke, seguruenik, aipatu Migel Ramon.
MIGELMUSU	C3	Horrela jaso dute bi dokumentuek ere. Osagaiak begibistakoak dira, <i>Migel</i> + <i>musu</i> , bigarren honek, lehenago esan dudan moduan, <i>galtzamusu</i> toponimoa azaltzerakoan, ‘aurpegi’-a adierazten duelarik, baina baita ‘aurre’-a ere.
OTSAI Otsaiko itzala Otsaiko kanteria	B3 B3 B3	NTM-n <i>otsagi</i> jaso dute, Ondarraren lanean dokumentaturik, baina honek <i>otsai</i> jaso zuen. Nire ustean, <i>otso</i> + (<i>h</i>)egi izan daitezke bere osagaiak, bigarrenak malda edo hegala adierazten dituelarik. Ondarrak, esaterako, <i>otsaiko-egutera</i> jaso zuen, hau da, eguzkiak jotzen duen eremua, eta eratorrian, berriz, ‘itzala’ ere badugu. Horrela beraz, bi malda edo hegal desberdinak izango litzuzke toponimo honek.
PUTZUBELTZAN	C3	Ondarrak bukaerako sudurkariarik gabe jaso zuen, eta NTM-n hemen bezala. Oso nabariak bere bi osagaiak, <i>putzu</i> + <i>beltz</i> , baina bukaera sudurkariduna beste toponi-

		mo batzuetan ere errepikatzen da: <i>arrizulan, zulanpe</i> . Eta hauek, 'harrizulo, zulope eta putzubeltz' izango genituzke, seguruenara.
SABASTIYA	B4	Nik bezala jaso zuen Ondarrak, eta NTM-n <i>sagastia</i> (1893). Nik ere 'sagar tokia' adieraztenduela uste dut, herskari belare ahostuna ezpainetako bihurtu delarik: <i>sagar + -ti > sagasti > sabasti + -a > sabastiya</i> .
SAGARMINDAI	C4	Ez da horrela ageri beste dokumentuetan, <i>sagarmendiko langa</i> baizik. Bi izan daitezke bere bilakabideak: <i>sagar + mindai</i> (mintegi) edo <i>sagarmin + -dai</i> (-tegi). Eta lehenak hurbiltasun handiagoa erakusten du Ondarrak eta NTM-k jasotako burutzapenarekin. Osagaiei dagokienez, azalduak ditut, dagoeneko, guztiak aurreko toponimoetan.
SALTOKA	C4	Horrela jasoak bi dokumentuetan, eta dokumentatua berriz: <i>saltoca</i> (1893), <i>saltoka</i> (1965). Harritzekoa bada ere, aditzondo batez osatua dugu oraingoan ibai eta trenbide arteko toponimoa.
SANGUSAI	B3	Horrela dator jasoak beste bi dokumentuetan. Ez dakit zein izan daitekeen bere lehen osagaia, baina bai bigarrena (Ikus aurreko eremuko <i>sagarminsai</i> toponimoa).
SASILATZ	C4	Modu berean jasoak beste dokumentuetan. <i>Sasi + latz</i> dira bere osagaiak, azkena zenbatzaile zehaztugabe moduan har daitekeelarik. 'Sasi asko' dagoen tokia adierazten du.
SOABIL	C4	<i>Sorabil</i> jaso dute NTM-n, horrela dokumentatua (1705-1711-1893) eta <i>soabil</i> (1965). <i>Soro + bil(du)</i> izan daitezke bere osagaiak, lehenaren kasuan dardarkari xamurraren galera izan duelarik. Soro ugari dagoen lekua adieraziko luke, beraz.
SOABERRITA	C4	Horrela Ondarrak eta <i>soraberrieta</i> NTM-n, eta dokumentatua <i>solaberrieta</i> (1711), <i>soroberrieta</i> (1893). Begibistakoak dira bere osagaiak: <i>soro + berri + -(e)ta</i> . Lehenak, berrito, dardarkariaren galera jasan du.
UBARKATXO Ubarkatzoko zidarra	BC4 BC4	Modu bererean bi lanetan, eta dokumentatua <i>ugarcacho</i> (1907). NTM-n ondorengo azalpena ematen dute: "Uharka, ubarka, es el nombre vasco de la presa, muy extendido en Navarra y vivo en el vascuence de Barranca y Burunda. Incluso en Ollo y Val de Etxauri siguen llamando <i>uberka</i> en castellano a las pasarelas de gruesos bloques de piedra en el río". Eratorriak ez du, dagoeneko, inongo zailtasunik erakusten.
UBITARTE	B5	Horrela ageri da bi lanetan. <i>U(r) + bi + tarte</i> dira bere osagaiak, 'erretena' edo 'azekia' eta 'ibai'-a direlarik aipatu bi urak.
URKINGO TXULO	B3	Ez dator Ondarraren lanean, eta NTM-n <i>urkingo zulo</i> jaso dute. <i>Urki(are)n + -go + zulo</i> dira bere osagaiak, bere

		bigarren lexemaren hasierako txistukaria afrikaturik ageri delarik.
USTAITZETA	B3	<i>Ustaitzeta</i> jaso dute beste bi lanetan. Bere lehen osagaia, ezaguna dugu Etxarriko toponimian: <i>ustiye</i> < <i>ustii</i> < <i>ustei</i> < <i>ustegi</i> (urtegi). Toponimo honen osagaiak, beraz, <i>ur</i> + <i>-te(g)i</i> + <i>(h)aitz</i> + <i>-eta</i> izango genituzke.
ZAINPE	B3	Modu berean beste bi lanetan. <i>Zain</i> + <i>-pe</i> dira bere osagaiak. ‘Zain’-ak zuhaitzen sustraiak izango genituzke.
ZUBILETA	C4	Hau ere horrela jaso dute bi lanetan. Badirudi <i>zubi</i> eta ugaritasuna adierazten duen atzizki eratorlea, <i>-eta</i> , oso agerikoak direla. Hala ere, toponimoaren erdialdeko kontsonante albokaria dela eta, begira zer dioen BB-k (1993, 366) Iturmendiko ‘Zulata’-ri buruz: “en un lío sobre paso y salida de aguas para unas parcelas de Iturmendi, acuerda el concejo que los dos contendientes ‘pongan una zulata al aire de forma que no impida el curso de las aguas asta el remate de la huerta del dicho Miguel Lopez”.

c) Burunda ibaitik Urbasa mendirainoko eremuak:

ADRABIYA Adrabiyako zulua	D5 D5	NTM-n <i>adrabia</i> eta Ondarrak ere horrela eta baita <i>aga-bia</i> ere. Etxarriko toponimian <i>agaabiye</i> dago. BB-n (1993, 52-53) 1382ko idazki batean Domingo de Adarabia ageri da, eta horrela azaltzen du: “Este Domingo de Arabia pensamos que alude a ‘darabia’, que es un topónimo renombrado entre el límite de Etxarri con Bakaikoa. Como los amojonamientos de 1699 circunscriben el territorio de ‘Adarabia’, cercano a la ermita de Santa Bárbara, damos este nombre en hipótesis de trabajo de campo al pueblo, que probablemente hubo en el alto de esta ermita, en la ladera de Andia-Urbaša”. Eratorriak eremuaren ‘zulo’ itxura adierazten du.
AIZGAINA	CD6	Horrela NTM-n eta mugatu gabe Ondarraren lanean. <i>(H)aitz</i> + <i>gain</i> dira bere osagaiak, ‘harri’ edo ‘malkor’ gaina adierazten du, beraz.
AIXLUX	C6	Ez da ageri NTM-n, eta Ondarrak <i>aizlux</i> . <i>(H)aitz</i> + <i>luze</i> dira bere osagaiak, eta horrela ageri zaigu Barga-ko eremuan, ‘malkor’ luze baten moduan, haritzen artean ikus daitekeelarik.
ALGORRI Algorriko errekoa Algorriko gaina	B5 B5 B5	Bi lanetan modu berean jaso dute, eta oso dokumentaturik ageri zaigu NTM-n: <i>algorria</i> (1690-1705-1893), <i>argorria</i> (1893), <i>algorri</i> (1893-1965). Badirudi <i>(h)arri</i> + <i>gorri</i> direla bere osagaiak, eta horixe bera esatera dator MB (2000, 51) Lantz-eko ‘algorrieta’ toonimoa azaltzerakoan: “Del vasco <i>al-</i> (variante en composición de <i>harri</i> ‘peña’, <i>gorri</i> ‘roja’ y el sufijo locativo <i>-eta</i>). La evolución sería la siguiente * <i>Arrigorrieta</i> > * <i>Argorrieta</i> > <i>Algorrieta</i> , observándose en el último paso un cambio en el punto de articulación de la consonante líquida en posición de final de sílaba. El fenómeno se repite en la Barranca con nombres

		como <i>Altxorrotx</i> (< * <i>Arrizorrotz</i>) Peña aguda”. Lizarragabengoako eremuan dugu <i>altxorrotx</i> toponimoa. Eratorrietan, bigarreneko burutzapen despalatalizatua dugu aipagai.
ALITURRITA Aliturritako iturriya Aliturritako rasua	D6 D6 D6	Horrela jaso dute beste bi lanetan. Osagaiak, aurrekoaren bidetik, (<i>h</i>) <i>arri</i> + <i>iturri</i> + <i>-(e)ta</i> izango genituzke. Bigarren eratorriko ‘raso’-ak, zuhaitzik gabeko tokia adierazten du.
ANTSOSORO	C6	Horrela jaso dituzte beste bi lanetan ere. ‘An(t)so’ Bakaikun oso hedatua dugu abizen moduan, eta abizen horretako norbaiten ‘soro’-a adierazten du toponimoak.
ARZABAL	C6	Horrela Ondarrak, eta txistukaria afrikaturik, <i>artzabal</i> , NTM-n. Berrito ere ‘harri’-ari egiten zaio erreferentzia toponimo honetan, ‘zabal’-a edo zelaitzua dela gaineratzen duelarik. Urbasa gain-gaineko toponimoa da.
ARBOTTON	C6	Horrela jaso dute NTM-n eta baita Ondarrak ere. Ondorengo azaltzen dute lehen lanean: “Arboton llaman en la zona a pequeñas peñas llamativas entre la vegetación. Es topónimo que no falta en casi ningún pueblo de Barranca y Burunda y que también está presente en muchos de la Cuenca de Pamplona. Los informantes explican <i>botton</i> como un elemento diminutivo, ‘como una muestra’, dicen. Según esto <i>arboton</i> sería el equivalente de ‘peñica, peñuela’”. Etxarrin <i>arbotoneta</i> toponimoa dago, eta <i>boton</i> (<i>botoi</i>) osagaiak txikitasuna eta boro-biltasuna adieraziko luke.
ARGANBELATA	CD5	Horrela jaso zuen Ondarrak, eta NTM-n <i>arganbeleta</i> , erdal grafiaz dokumentaturik bi aldiz 1893 urtean. Azalpena, berriz, hauxe da ematen dutena: “Nos recuerda la existencia de pesebres o abrevaderos para el ganado. En este caso hechos de piedra. De <i>harri</i> ‘piedra’, y <i>ganbel</i> , ‘abrevadero, pesebre’. En esta zona el valor es siempre el de abrevadero, lo que explica su abundante presencia en toponimia. <i>Arganbel</i> , por otra parte, se conserva lexicalizado en el castellano de Val de Goñi (Munárriz), donde llaman así incluso a los abrevaderos de madera, artificiales o naturales (truncos ahuecados que recogen agua de lluvia). Es término muy común en toponimia”. Harriz egindako ganbelak dauden tokia adierazten du toponimo honek.
ARRIURDIN	B5	Horrela ageri zaigu beste bi dokumentuetan ere, eta dokumentatua 1893, 1907 eta 1965ean. NTM-n ondorengo azalpena ematen digute: “Topónimo muy común y que aparece en casi todos los pueblos donde se conserva la toponimia vasca. En otros lugares de la Cuenca de Pamplona este topónimo suele darse en zonas donde abundan los <i>tufarros</i> , las margas, que, como es sabido, son de un color grisáceo”. ‘Urdin’ osagaiak gris koloreari egiten dio erreferentzia, eta ‘tufa’ kolore horretakoa izaten da.

ATXIMENDI	B5	Hau ere horrela jaso dute bi dokumentuek, 1893, 1907 eta 1965ean dokumentatua. Horrelaxe azaldu dute NTM-n: "Atximendi será seguramente una elevación apropiada para jugar al 'atxi', especie de juego que ha estado vigente hasta tiempos recientes en la Baranca. cf. 'Atximendi' en Alsasua". MB-k (2000, 100), <i>azimendi</i> jaso du Iragin, eta ondorengo azalpena ematen digu: "Podría tratarse de * <i>Azarimendi</i> 'Monte de los zorros'. Tampoco se puede perder de vista topónimos como <i>Atximendi</i> (Baranca) donde <i>atxi</i> es un tipo de juego". Hipotesi mailan sartuz gero, (<i>h</i>)aitz + <i>mendi</i> ere izan daitezke bere osagaiak.
AZTARRIYA GAINA	C5	Ez da ageri NTM-n, baina Ondarrak <i>aztarriagaina</i> jaso zuen. Autore honek, bere hiztegian <i>aztarrika</i> (-n <i>ibilli</i>) 'escabar las gallinas' eta <i>aztarrikatu</i> 'escabar' ere jaso ditu. Horrela beraz, lur 'aztarrikatu'-a dagoen eremuko punta, muino edo gaina adierazten du toponimoak.
BEGIARGI	CD5	Ez dator Ondarraren lanean eta <i>begiargisoro</i> jaso dute NTM-n, horrela dokumentatua: <i>beguiargisoro</i> (1706), <i>beguiargisoro</i> (1893) eta <i>begierguisoro</i> (1907). <i>Beg</i> bistakoak dira bere osagaiak, baina zail suertatzen da <i>argitzea</i> zer esan nahi duten eremu honetan.
BEXUNARRI	C5	<i>Beixunarri</i> Ondarrak, <i>besonarri</i> NTM-n, eta dokumentatua: <i>besonarri</i> (1893-1907), <i>besonarri</i> (1907). Azken osagaia baino ez da oso argia.
BIDEZABAL	D5	Horrela ageri zaigu beste dokumentuetan ere. Ez zen, garai batean, edozein bide, Bakaikuko Bargatik Etxarrikoa zeharkatuz Urbasara doan bide edo galtzada dugu. 'Bide zabal'-a, beraz.
BIKABATA	C5	Ez dute jaso beste dokumentuetan. Esanahiari dagokionez, argigarri suerta dakiguke Ondarrak bere hiztegian, 258. burutzapenean esaten duena: "kaba: conjunto de cava o foso y cerca. <i>Esia ta zulua den lekua</i> : lugar donde hay cerca y foso". Argi geratzen zaigu, orduan, 'bi kaba' dauden tokia izango genukeela toponimo honetako eremua. Horrelako eremuei Etxarrin 'sare' esaten zaie, eta abereak bertan biltzeko oso egokiak izaten dira.
BIMUNOTA	C5	Hau ere ez dute jaso, eta egituraren aldetik aurrekoaren parekoa izango genuke: zenbatzailea + izena + ugaritasuna edo multzoa adierazteko atzizki eratorlea. Kasu honetan izenak 'muino', 'bizkar' edo 'mendixka' adierazten du.
BISTAKO ARRIYA	D6	<i>Bistako-arri</i> Ondarrak eta <i>bistako harria</i> NTM-n, ondorengo azalduz: "1126 m. de altitud. El nombre debe de referirse a la cualidad de atalaya del lugar". Ageri-agerian dagoen harria izango genuke, bistan dena.
BURNIKUTZ	D6	Horrelaxe Ondarrak, eta <i>burnikurutza</i> NTM-n, hurrengo azalpenaz lagundurik: " <i>Kurutza</i> es la variante burundesada de <i>gurutze</i> 'cruz'. Ambas son muy frecuentes en toponimia, y reflejan la costumbre muy extendida de

		levantar cruces fuera de los núcleos urbanos por diversas razones. La creencia general es que recuerdan una muerte caecida en el término, pero esto no es siempre cierto. José María Satrústegui distingue tres tipos de cruces: las levantadas por una muerte, las que deslindan mugas de pueblos, y las que marcan lugares de conjuros contra tormentas..., etc. Podemos añadir las cruces de los Calvarios”. Burnizko gurutzeta dugu, mendigainean dagoena.
BUSNIYA	C5	Ondarrak <i>busnia</i> eta NTM-n <i>burusnia</i> , horrela dokumentatzen dutelarik: <i>buruzma</i> (1690), <i>burusnia</i> (1708-1713), <i>burustia</i> (1722), <i>busnia</i> (1893), <i>busma</i> (1893). Karasatorrek BB-n (1993, 137) <i>bururdia</i> Urdiainen (‘una manta de lana que llaman bururdia’) eta <i>burusquil</i> Altsasun (‘Ytem fue tratado que todos los años se acostumbra hacer en la Sierra de Urbasa la cabaña ó cubillar que llaman burusquil ó chaltegui ...’) jaso ditu.
DANTZALARRE	BC6	Horrela ageri zaigu jaso beste bi dokumentuetan, eta NTM-n hurrengo azalpena ematen dute: “Lugar donde se acostumbra a bailar el día de Santa Marina. Textualmente ‘Santa Marinatik jeisten danean or eiten zan deskantso, bokautxo bat eta ardo pixkat iateko eta horregatik <i>dantzalarrea</i> ”. ‘Larre’ hitza belardia esateko erabiltzen da eremu osoan.
ERREKAZGAINA	B5	Toponimoa mugatzailerik gabe jaso dute beste dokumentuetan. Oso agerikoak dira osagaiak eta esanahia, errekarren gainaldea adierazten digularik.
ERRIYAN SOABERRIYA	C5	<i>Errien soraberi</i> NTM-n eta ia berdin, <i>errien-soaberi</i> , Ondarrak. Lehenean, ondorengo esaten dute: “ <i>Soraberi</i> es uno de los nombres vascos de la ‘roza’ o ‘rotura’, es decir, el terreno de reciente roturación. Estas roturas son, o fueron comunales (herriarenak)”. ‘(h)erriaren + soro + berri’-ak ditugu, beraz, hauek. Lehen eta hirugarren osagaiak kontsonante epentetikoak daukate, eta bigarrenak dardarkari xamurraren galera jasan du.
ERRON GAZTAINALDIYA	C6	Ia modu berean jaso dute beste dokumentuek. Toponimoaren bigarren zatia ezaguna dugu dagoeneko. Lehena, izen nagusia eta edute genitiboaren morfema dugu, ‘Erro + -ren’, ondorengo bilakabidea zian duelarik: <i>Erroren</i> > * <i>Erroen</i> > * <i>Erroon</i> > <i>Erron</i> .
EZTALUBIYA	BC5	Ez dute NTM-n jaso, baina Ondarrak <i>eztalubia</i> dakar. Ezezagunak egiten zaizkit bere osagaiak, eta soilik mugatzailea eta hauxe eransterakoan jasotako kontsonante epentetikoak antzeman daitezke.
FANTXIKON KURUTZA	C6	NTM-n <i>fantxikokurutza</i> jaso dute, eta Ondarrak ez dakar. <i>F(r)antxi(s)ko(re)n kurutz</i> -etik datorkigu toponimoa. Aipagarria da bigarren osagaiako herskari ahoskabearen aldeko neutralizazioa. Etxarrin <i>guutze</i> izango litzateke honen burutzapena.

GAINEKO SO(R)OTA	C5	Ondarrak horrela jaso zuen, eta NTM-n ugaritasuna adierazten duen atzizki eratorleari erdiko bokala erantsi diote, <i>soroeta</i> , eta dokumentazioan: <i>gainecosota</i> (1893), <i>gainecosorota</i> (1893), <i>gainecosorota</i> (1893-1907), <i>gainecosorota</i> (1965). Herri gainaldeko soro tokia adierazten digu toponimo honek.
GOIKO LANGA	C5	Horrela datorkigu beste dokumentuetan ere, eta dokumentaturik: <i>goicolanga</i> (1893), <i>goikolanga</i> (1965). Osagaiak eta esanahia begibistakoak ditugu, eta bigarrenari dagokionez, lehenago adierazia.
GOIZUETAN TXOZIA	CD6	Ez dute jaso beste dokumentuetan. Bere osagaiak <i>Goizueta(re)n</i> eta <i>txozia</i> ditugu, 'Goizueta' izeneko norbaiten ehizarako txoza dagoen eremua adierazten duelarik.
IDARTE	C5	Ez dator jaso NTM-n, baina bai Ondarraren lanean, horrela. Bigarren osagaia 'arte' izango genuke, baina lehenengo ez dago hain nabarmen, ezen <i>idoi</i> edo <i>ira</i> < <i>ida</i> izan baitaiteke. Lehenengo hipotesiari jarraituz, 'lokatz' edo 'baltsa' arteko lur eremua adieraziko luke; bigarrenak, berriz, 'ira' edo 'garo' artea.
IDOIKO SASIYA	C6	Ondarrak <i>idaiko-sasi</i> , eta NTM-k <i>idoiko sasia</i> ondorengo azalpenarekin: "Llámase <i>idoi</i> en euskera a las balsas pequeñas, en general de agua de lluvia. Es general en toponimia, y sigue muy vivo en el esukera burundés y barranqués. 'Leku zikina oso, sasiya dana'. En este paraje hay un <i>irritu</i> , un corrimiento de tierra". Sakana osoan ezaguna dugu 'idoit(t)u' aditza, ondorengo esanahiarekin: basurde eta txerriak ur baltsa eta lokatzetan zilpurdika ibiltzea. (Revolcarse en el fango los cerdos y jabalíes). Garbi dago, orduan, toki oso zikina dela bertan ibiltzeko, lokatza eta sasiak ugari baitira bertan. MB-k (2000, 202-203) antzeko toponimoak jaso ditu: <i>idoiaga</i> Garden, <i>idoieta</i> Lizarieta-Etxalar-Beran eta <i>idokorri</i> Aspuzten.
IRIMENDI	B5	Horrela jaso dute NTM-n, eta Ondarrak <i>irimendikogaina</i> . MB-k (2000, 214) <i>iramendi</i> jaso du Zubietan, <i>iramendiko kasko</i> Zilbetin, eta <i>irigarai</i> Badostainen. Lehen osagaia bietako edozein, 'ira' edo '(h)iri', izan daiteke, lehenak 'garoz estalitako mendia edo gaina' eta bigarrenak 'hiri edo herriko gaina' adieraziko luketeelarik.
IRUAITZAK	C6	Horrela jaso zuen Ondarrak, eta NTM-n <i>hiru haitzak</i> ondorengo azalpenaz lagundurik: "1125 m. de altitud. Se trata de tres peñas en la muga con Urbasa muy descollantes. Una de ellas posee una ventana natural". Berezko leiho hau, Etxarri aldetik ikusten den zuloa izango genuke.
ITURBIKATU	C5	Horrela jaso zuen Ondarrak, eta NTM-n <i>iturbedeinkatu</i> , ondorengo dokumentazioa eta guzti: <i>iturbedeicatu</i> (1697), <i>iturribideicatu</i> (1705), <i>iturbedicaitu</i> (1706), <i>iturribedicatu</i> (1711), <i>yturvedicatu</i> (1893), <i>ytuberricato</i> (1907), <i>iturberricatu</i> (1907), <i>iturbikatu</i> (1965). <i>Iturri</i> +

		<i>b(ede)i(n)katu</i> izango lirateke bere osagaiak, dokumentazioak ere horrela erakusten baitu.
ITURRARTE	C5	Modu berean jaso dute bi dokumentuetan, eta NTM-n horrela ageri da dokumentatua: <i>iturrarte</i> (1706-1965), <i>iturrartea</i> (1709-1713), <i>iturartea</i> (1712). <i>Iturri</i> + <i>arte</i> dira bere osagaiak, eta iturrien arteko eremua adieraziko luke.
ITURLATZ Iurlazgo txelaya	BC6 BC6	Horrela ageri da beste bi dokumentuetan. <i>Iturri</i> + <i>latz</i> dira bere osagaiak, eta bigarren honek 'asko' zenbatzaile zehaztugabearen esanahia hartzen du maiz Sakana aldean. Toponimo eratorrian, genitibo lokatiboaren atzikia erantserakoan ez da burutzapen afrikatua erabiltzen, eta herskaria bera ere ahostuna burutzen da. Bigarren zatian, aldiz, txistukari afrikatua erabiltzen da hitz hasieran: <i>zelaya</i> > <i>txelaya</i> .
KAMIYOGAINA	C5	Ondarrak <i>kanbiogain</i> , eta NTM-n <i>kamiogain</i> , jaso dute <i>camio-gaña</i> (1893) ere dokumentatzen dutelarik, ondorengo azalpenarekin batera: "El préstamo del castellano <i>kamio</i> no es sinónimo de <i>bide</i> 'camino', sino que significa más bien 'pista', 'carretera'". Errepidearen gainaldea litzateke, beraz.
KURUTZABERRI	C5-6	Horrelaxe jaso izan dute besteek ere. Eta NTM-n <i>curuzaberrri</i> (1893) ageri dokumentatua. Bidegurutze berria edo gurutzea, biak adieraz ditzake toponimo honek.
LAUNTZA	C5	Hemengo moduan Ondarrak, eta <i>laguntza</i> NTM-k, eta horrela dokumentaturik: <i>lagunza</i> (1893), <i>laguntza</i> (1893). Egungo burutzapenak argi eta garbi erakusten du ez dela ahoskatzen bokal arteko herskari belare ahostuna.
LARTZEKO ETXALDE	C5	Hemengo burutzapena Ondarrak, eta NTM-n <i>larratzeko etxaldea</i> , dokumentazio zabala eransten dutelarik: <i>larrazecoesualdea</i> (1703), <i>larrazecochaldea</i> (1708-1709), <i>larraceochard(i)a</i> (1893), <i>larraceochaldea</i> (1893) <i>larscochaldea</i> (1907). <i>Larr(a)tz(an)eko</i> + <i>etxe</i> + <i>alde</i> izango lirateko bere osagaiak, aurreko eremuko beste toponimo baten antzera: <i>lartzeko liyosorota</i> .
LEZKIZO	C5	Modu berean ageri zaigu beste bietan, baina oso zail suertatzen da bere osagaiak eta esanahia azaltzea.
LOSADIYA	C6	NTM-n <i>losadia</i> jaso dute, eta Ondarrak ere horrelaxe, baina mugatzailerik gabe, jaso zuen 1965ean. Osagaiak begi bistakoak ditugu: <i>losa</i> + <i>-di</i> , hau da, harlauzak dau den tokia. Kontsonante epentetikoa ere ageri da mugatzaile singularra eransterakoan.
LUZUPITA	C5	Modu berean jaso bi dokumentuetan eta dokumentatua NTM-n (1907). Bere osagaiak ondorengoak izan daitezke: <i>lur</i> + <i>-zu</i> + <i>-pe</i> + <i>-(e)ta</i> . Bigarren morfema eratorleak, lehen morfema eratorlearen bokal itxiak eragindako asimilazio aurrerakaria jasoko luke: <i>lu(r)zupe</i> > <i>luzupi</i> . Esanahia, berriz, 'lur askoko eremuaren azpialdea' izango litzateke, hipotesi honi jarraituz gero.

MALKORDI Malkordiko malkorra	C6 C6	Hau ere modu berean beste bietan eta gaztelaniako grafiaz dokumentatua (1893-1907). Osagaiak erabat begibistakoak ditugu toponimoa honetan, eta esanahia 'malkor edo haitz handi asko dagoen tokia' izango litzateke. Eratorriak errepikatu egiten du osagaietariko bat, baina besteengandik bereiziz eremuko 'haitz'-etako bat.
MINTAIYA	BC5	Ondarrak kontsonante epentetikorik gabe jaso zuen, eta NTM-n <i>mintegi</i> , ondorengo dokumentazioarekin: <i>minteguia</i> (1722-1893), <i>mintegui</i> (1893), <i>mintaya</i> (1907), <i>mindaya</i> (1907), <i>mintey</i> (1907). Ondorengo azalpena gaineratzen dute azken hauek: "El topónimo designa la existencia de un vivero que generalmente se destinaba a la producción de especies forestales". Horrela erabiltzen da Bakaikuko hizkeran 'mintegi' hitza, zuhaitz edo landareak sortu eta hazteko tokiari esaten zaiolarik. Aldameneko Etxarrin, <i>montteixe</i> esaten zaio. Argi ikus daiteke toponimo honetan ez dela, normalean, palatalizazioa suertatzen bakaikueran.
MITXELAUNDI Mitxelaundiko iturriya	C5 C5	Modu honetan, baina mugaturik Ondarrak eta NTM-k, eta dokumentatua, aldiz: <i>michelandia</i> (1705), <i>michelandi</i> (1893), <i>mitxelaundia</i> (1965). <i>Migelaundi</i> -tik datorkigu, seguru aski. Toponimo honen eremutik nahiko hurbil, Etxarriko dermioan, <i>fandalamikel</i> toponimoa dugu, 'jaun + done + mikel' osagaiak izango litzuzkeelarik. 'Migel handia' izango genuke, beraz, toponimo honetako protagonista, Aralarkoaren ohoretan seguruenik.
MUGA	D5	Ez da horrela ageri beste dokumentuetan, <i>mugakatai</i> baizik. 'Mugako ata(r)i'-a adieraziko luke, beraz, honek. Etxarriko dermioarekiko 'muga' adierazten du.
MUGARRITXO	D5	Horrela jaso dute besteetan ere, eta NTM-n hurrengo azalpenarekin batera ageri da: "El topónimo hace referencia a la existencia de un mojón en el término pero que no es ni mucho menos pequeño ya que pesará, según los informantes, alrededor de doscientos kilos". 'Mugarri' hitz konposatua, mugak markatzeko erabiltzen dena, eta atziki txikigarria, <i>-txo</i> , dira bere osagaiak.
MUGETA	B5	Hemengo moduan NTM-n, eta <i>mugata</i> Ondarrak eta NTM-ko dokumentazioan: (1907, bi aldiz-1965). Gaur egun entzun daitekeen burutzapenak, lehen silabako bokal itxiak eragindako bigarren bokalaren asimilazio aurrerakaria jasotzen du, argi eta garbi.
OINETA Oinetako aitza Oinetako isuiya Oinetako pagadiya Oinetako zidarra	C6 C6 C6 C6 C6	Horrela jaso dute beste bi dokumentuetan. <i>Oin</i> + <i>-eta</i> izango lirateke bere osagaiak, eta Iturmendi eta Urbasarekin muga egiten den eremuko malkordia eta amildegia hartzen ditu bere esparruan. Toponimo eratorriak oso adierazgarriak ditugu: lehenak, 'haitz'-a edo malkorra bera adieraziz; bigarrenak 'isuri'-a edo higadurak sortzen duen harri pilaketa; hirugarrenak, 'pagadi'-a; eta azkenik, laugarrenak, 'zharra' edo malda.

OLASKOMUNO	C5	Modu berean jaso dute besteek ere, eta NTM-n horrela ageri zaigu dokumentatua: <i>olascomuno</i> (1893), <i>olascomunio</i> (1893), <i>olascomuñoa</i> (1907). Bestalde, horrelako azalpena ematen dute: “En la localidad <i>muno</i> no es una colina sino un ribazo entre dos campos”. Ez genuke ‘mendixka’ izango, ‘ezponda’ baizik, ‘muno’-aren esanahia. Lehen osagaia, <i>olasko</i> , ‘oilasko’-ren ordaina izango genuke, seguruenik.
OPORO Oporoburu Oporoko balsa	CD4-5 CD5 CD4	Horrela jaso dute besteek ere, eta dokumentazio ugari ageri da: 1705-1706-1893-1965, beti ere, dardarkari xamurra daramalarik. Etxarriko izen bereko toponimoaren ondoan dugu, baina hemen burutzapena, batzuetan behintzat, dardarkari xamurrarik gabe egiten da. Bigarren eratorriko bigarren osagaien, aipatzekoa dugu berriro txistukari frikariaren aldeko neutralizazioa.
OTTONARRI	D6	Modu berean jaso dute beste bietan ere. Osagaiei dago-kienez, nire ustean, (<i>b</i>)otton + (<i>h</i>)arri dira, lehenak konsonante herskari ezpainkari ahostuna gltzen duelarik. Eremu berdinean <i>arbotton</i> ere azaldu dugu, eta esanahia berdina izango litzateke.
PAGOAZPIKO ITURRIYA	CD6	Ez da ageri beste lanetan. Ageri-agerikoa dugu osagai eta esanahiaren auzia, eta aipatzekotan, soilik lehen osagaiko zuhaitz izenaren hasierako kontsonantearen burutzapena, <i>b/p/f</i> txandaketa islatzen duena. Aldameneko Sakana erdialdeko hizkeran <i>f</i> -dunak ditugu burutzpen gehienak.
PARAPETO	C5	Hau ere ez dute jaso beste lanetan. Badirudi erdal hitza izango genukeela, eta ‘oztopo’, ‘hesi’ edo nolabaiteko ‘traba’ adierazten duela.
PARPAINU	C5	Modu berean jaso dute beste bi lanetan ere, eta NTM-n dokumentazio ugariarekin ageri da: <i>parapñoa</i> (1705), <i>parpañua</i> (1712), <i>parpaino</i> (1893), <i>parpainu</i> (1893-1965), <i>parpain</i> (1893-1907). Ez da batere erraza osagaiak zeintzu izan daitezkeen erabakitzea.
SANBENITOKO KURUTZA Sanbenitoko iturriya	B5 B5	Ondarrak <i>san benito-kurutza</i> , eta NTM-n <i>san benitoko kurutzea</i> . Azken honetan, bestalde, ondorengo azalpena ematen dute <i>san benitoko ermita</i> toponimoarekin batera: “Un informante tiene noticia de que en tiempos hubo un pueblo en este lugar, del que perduró la ermita en la falda de Urbasa”. Osagaiak eta esnahia begibistakoak ditugu, eta aipatzekotan, bigarren zatiko hasierako herskari belare ahoskabearen aldeko burutzapena litzateke.
SANTABARBARA	D5	Ondarrak jaso zuen, baina ez NTM-k. Etxarriko mugan, Bargaren hasiera aldean, dago toponimo hau, eta aipatu herrian ere burutzapen berbera erabiltzen dute. Duela urte gutxi arte toponimo honen izeneko ermita bat zegoen Etxarriko dermioaren aldetik.
SANTIYOALDE	C5	Ondarrak <i>santioalde</i> eta NTM-n <i>santiagoalde</i> , horrela dokumentaturik: <i>santiagoalde</i> (1705), <i>santiagoalde</i> (1722), <i>santiago-aldea</i> (1893), <i>santioalde</i> (1965). Eta

		ondorengo azalpenaz laguntzen dute: “En este paraje existe una ermita de Santiago, dentro del pueblo”. Egungo burutzapenak ondorengo bilakabidea izan du: <i>santiagoalde</i> > <i>santiaoalde</i> > <i>santioalde</i> > <i>santiyoalde</i> , hasieran bokal arteko herskaria galdu, gero bokal murrizpena eta, azkenik, <i>y</i> -ren epentesia suertatu direlarik.
SAUSORO Sausoroko iturriya	C5 C5	Bai Ondarrak, bai NTM-k <i>sagusoro</i> jaso dute, eta dokumentaturik: <i>sagusoro</i> (1893-1965), <i>sagonsoro</i> (1893), <i>sabusoro</i> (1893). Azalpena ere ematen digute NTM-koek: “Al parecer en esta pieza se plantaba trigo, y era frecuente que en años en que escaseaba el hayuco (vasc. <i>paxi</i>) los ratones bajaran del monte para devorarlo”. Garia ez da landatzen, erein baizik, eta nire usteen, soro bat baino, soro eremua adierazten du toponimo honek. Lehen osagaiak bokal arteko herskari ahostuna galdu du egungo burutzapenean.
SOLDAULARRIYA	C6	Modu berean, baina mugatzailerik gabe jaso dute beste biek. NTM-n ondorengo azalpena ageri zaigu: “Es una pequeña peña donde de manera informal se solía medir la estatura, como si fuera la talla del servicio militar. <i>Laurri</i> , <i>neurri</i> medida”. Aipagariak ditugu lehen osagaiaren herskari hortzetakoaren galera, eta bigarrenaren <i>l/n</i> txandaketa. Burundan <i>n-z</i> burutzen da hau, eta Sakana erdialdean <i>l-z</i> , bakaikueran bezala.
TAILAYAKOTXULO	B5	Ondarrak <i>teileiako-txulo</i> , diptongoa birritan itxia mantentzen duelarik, eta NTM-n <i>teileriako zulo</i> , lehen osagaiari dagokionez diptongo bigarrenkaria sortu gabe (ez da erortzen dardarkari xamurra), eta bigarreneko hasierako txistukaria afrikatu gabe. Begibistakoak dira osagaiak eta esanahia: ‘teileria’ bat egon zeneko ‘zulo’ edo tokia izango genuke, beraz.
TRIKUSORO	C5	Horrela jaso dute beste dokumentuetan ere. Osagaiari erreparatzen badiegu, ‘sagarroi’, ‘kirikino edo ‘triku’ ugari ageri ziren eremu honetan noizbait.
TXONDORRA	C6	Ez dute jaso beste bi dokumentuek. Txondorra ikatza egiteko erabiltzen zen sistema izango genuke. Egurra txikitu eta metatu, lur eta orbelez estali eta, ondoren, su ematen zioten barrutik (su-etxetik) geldi-geldi egosten joan zedin. Eta hau guztia, basoan bertan egiten zen, horretarako egokitutako txondor-zulo edo txondor-plazetan, egurrak metatzeko zelai egokituak. Etxarrin <i>txondar</i> esaten zaio.
TXORITAI	B5	Modu berean jaso zuen Ondarrak, eta NTM-k <i>txoritegi</i> , ondorengo dokumentazioarekin: <i>choritegui</i> (1893), <i>choitegui</i> (1907), <i>chaitegui</i> (1907), <i>txoritai</i> (1965). Begibistakoak dira bere osagaiak eta esanahia: <i>txori</i> + <i>-tegi</i> , txori asko dagoen tokia. Aipatzekoa izango genuke, hala ere, bigarren osagaiko dardarkari xamurraren galera eta ondorengo diptongo bigarrenkariaren irekiera.
TXUNKAI Txunkaiko iturriya	C6 C5	Berriro ere Ondarrak modu berean, eta NTM-n burutzapen formalizaturikoa, <i>txunkadi</i> , ondorengo azalpenaz

		lagundurik: “El topónimo nos habla de la presencia de juncos (<i>xunko</i> , <i>txunko</i> , <i>txungo</i>) en el término”. Morfema eratorlea eransterakoan, herskari hortzetakoaren galera suertatu zaio: <i>txunka</i> + <i>-di</i> > <i>txunkadi</i> > <i>txunkai</i> .
URDINBIDE Urdinbideko arriya Urdinbideko txelaya	C6 C6 C6	Horrelaxe jaso dute beste bi dokumentuek, baina Ondarrak ondorengoa erantsi dio: “(de Urdiain?)”. Nik ez dut uste Urdiaingo bidea adierazten duenik, horretarako egokiago izango litzatekeelako aldameneko herria aipatzea eta, gainera, ‘urdin’ toponimian asko erabiltzen den hitza dugulako, kolore nahasia edo adiera bat baino gehiagokoa, gutxienez: ‘arre’, ‘gris’, ‘urdin’, ... Eta ‘tufa’-k horrelako kolorea izaten duenez, horrelako lur mota duen bidea adieraziko liguke. MB-k (2000, 380) ere <i>urdintz</i> jaso du Zigan, ondorengo azalpena ematen duelarik: “Probablemente del vasco <i>urdin</i> ‘color poco marcado que abarca las gamas desde el gris al azul pasando por el verde’ y el sufijo locativo <i>-tz(a)</i> ”.
USOITURRITA	C5	Ondarrak <i>usuiturrita</i> eta NTM-k <i>usuiturrieta</i> . Nik lehen osagaiaren azken bokala erdikoa jaso dut, zalantzarik gabe. Usoek ura edaten zuteneko iturria adierazten du, osagaiari erreparatzen badiegu.
ZELAYA	C5	Ia modu berean beste bietan ere, soilik egun bokal itxia kontsonantizaturik entzuten dela. NTM-n horrela dokumentaturik ageri dute: <i>zelaia</i> (1703), <i>Çelaia</i> (1705), <i>zelaia</i> (1711-1965), <i>celaya</i> (1893). Esanahi garbia du, eta herri ondoan dago aipatu leku laua.
ZIDARBIDE Zidarbideko azpiya Zidarbideko portillua	C6 C6 C6	Horrelaxe jaso dute beste lanetan ere, eta NTM-n horrela azaldurik agertzen da: “ <i>Zidar</i> es la variante burundesa del muy extendido <i>zehir</i> ladera, cuesta”. Maldan zehir doan bidea izango genuke, beraz, toponimo honen esanahia. Azken eratorrian, ‘portillua’ ageri zaigu, eta honek ‘langa’ edo ‘ate’-ren esanahia izaten du, hauda, bidea moztzen duen langa.
ZULANPE	C5	Hau ere horrela jaso dute beste biek, eta NTM-k Ondarrarenaz gain 1893an dokumentatua jaso du: <i>zulampea</i> . Badirudi ‘zulo’ izan daitekeela lehen osagaia eta <i>-pe</i> morfema eratorlea azkena, baina aurreko eremuan ageri zen toponimoarekin, <i>arrizulan</i> , bezala gertatzen da oraingoan ere, ez dela batera erraza bere esanahia erabakitzea.

BIBLIOGRAFIA

- BELASKO, Mikel: *Diccionario etimológico de los nombres de los montes y ríos de Navarra*, 2000.
- ERDOZIA, Jose Luis: "Etxarri-Aranazko leku-izenak", *FLV*, 2001, 88.
- GORROTXATEGI, Mikel: "EUDEL-ekiko hitzarmena dela eta euskaltzaindiaren toponimia lantaldearen plangintza", *Euskera*, XLIV, 1999-2, 911-919.
- KARASATORRE, Rafael: *Barranca-Burunda*, 1993. BB iruzkinetako aipamenetan.
- LIZUNDIA, J. L.: "Toponimoen ofizialtasunaz eta administrazio arteko aplikazio arazoez (I)", *Euskera*, XLIV, 1999-2, 907-910.
- NAFARROAKO GOBERNUA: *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*, 1991.
- NAFARROAKO GOBERNUA: *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza X*, 1992.
- ONDARRA, Francisco: "Voces vascas de Bacaicoa", *RSVAP*, año XXI, cuadernos 3º y 4º, 1965.
- SALABERRI, Patxi: "Criterios para la normalización de la toponimia mayor de Navarra", *FLV*, 79, 1998, 653-666.
- , "Toponimia nagusia normalizatzeko irizpideak mintzagai", *Euskera*, XLIV, 1999-2, 921-930.

LABURPENA

Artikulu honetan, lehenago Etxarri-Aranatzekoekin egin genuen moduan, Bakaikun gaur egun herritarren ahoan bizirik dirauten toponimoak jasotzeaz gain, haien dokumentazioaren berri eman eta, gehien kasuan, jatorria edota esanahia ere azaltzen ahalegindu gara. Era berean, gai honen inguruan orain arte egin diren bilketa eta azterketak kontuan izan ditugu (Francisco Ondarra, Rafael Karasatorre, Tracasa), baina helburu nagusia, bai toponimo kopuruari nola transkripzioari dagokionez, egungo erabilerara lotzea edo atxikitzea izan da. Beraz, 2002 urteko Bakaikuko leku-izenen bilduma izango genuke esku artean duzuen hauxe, baina hori bai, modu zehatz eta ordenatuan burutua.

RESUMEN

En este artículo, como anteriormente hicimos en el caso de Etxarri-Aranatz, además de recoger los topónimos en uso de Bakaiku, hemos dado cuenta de la documentación referida al tema de los nombres de lugar de la localidad citada, amén de explicar, en la mayoría de los casos, el origen y/o significado de los mismos. Para ello, hemos contado con los diferentes trabajos y estudios realizados hasta ahora (F. Ondarra, R. Karasatorre, Tracasa), siendo el objetivo fundamental, en lo referente a la cantidad y a la transcripción de los mencionados topónimos, el de ceñirse a las formas en uso en la actualidad. Así pues, el presente es un trabajo que recoge los nombres de lugar de Bakaiku tal y como se utilizan en el año 2002, eso sí, realizado de forma pormenorizada y ordenada.

RÉSUMÉ

Dans cet article, comme nous l'avons auparavant fait dans le cas d'Etxarri-Aranatz, outre recueillir les toponymes en usage à Bakaiku, nous avons rendu compte de la documentation se référant au thème des noms de lieu de la localité citée, afin d'en expliquer, dans la plupart des cas, l'origine et/ou signification. Pour cela, nous avons disposé des différents travaux et études réalisés jusqu'à présent (F. Ondarra, R. Karasatorre, Tracasa), l'objectif essentiel étant, en ce qui concerne la quantité et la transcription des toponymes mentionnés, celui de se limiter aux formes en usage dans l'actualité. Ainsi donc, cet article est un travail qui recueille les noms de lieu de Bakaiku tels qu'ils s'utilisent en l'an 2002, mais réalisé de forme détaillée et ordonnée.

ABSTRACT

As previously done in the case of Etxarri-Aranatz, in addition to collecting in this article the toponyms in use in Bakaiku, we also give an account of the

documentation referring to the subject of place names in the area, explaining, in most cases, origin and/or meaning. Different works and studies carried out to date (F. Ondarra, R. Karasatorre, Tracasa) have been used, the main aim being, insofar as the quantity and transcription of the toponyms are concerned, that of keeping as close as possible to those forms currently in use. In this way, the present work collects Bakaiku place names as used in the year 2002 in detail and order.